

GAURKO ARAZOAK

BARDITASUNA TA AGINTARITZEA

GIZA-NORTASUNA ZAINDU TA LATERRI-
ESKUBIDEAK MUGATU
GIZONEN BARDITASUNA BABESTU
XVIII GIZALDIAN, LEGE-GIZON ETA GO-
GOETARIEN LANA
LATERRIAREN ALMENAK ERRITIK DATOZ
(U. S. A.)
ONIAREN IRAKATZIA

Gaurko gizonentzat bear-bearrekoa da gizonen zaintzea.

Eta gai oneri buruz ekitea ez da alperreko ta ardurabako gauzea.

Eskubide-autorpenak argi agertu arren be, Laterriak ez dau beti zaintzen nortasun ori, Gizonaren nortasunari dagokiozan eskubideetan egu sartzen da.

Gaur egun Laterriak almen aundia dauko eta ez dogu arritu bear bere buruzagiak eta zuzendariak danean jabe lez egin eta agindu-gurean ikusten doguzanean.

Laterriaren griña oneri mugak ipiñi bear jakoz ba, iñoz aitzu barik.

Erri-gizonen eskubideetan sartzea, antxinako gaitxa da, baiña gaur egun askoz kaltegarriagoa, gizona Laterriaren aurrean babes eta gordeleku barik dago ta.

* * *

Eskubideen Autorpenaren zeregin bat auxez izango da ba: Laterritik edo beste edozein lagune-gandik erri-gizonari datorkoan arriskuak urrindu.

Orretarako mugak bear dira eta izan leitekez legediak, baiña legedi orreik bete-azo egin bear dira Laterri alguztidun orrek erria ez dagian zapaldu ta artegatu.

Legedi orreikaz mundu guztian eta sailla guztietan bardintasuna lortu bear da: ondasunen jabetasunean, erlejiñoan, enden artean, alkarren eskubideak zaintzean... Eta barditasun bizirako

babesak, lege-bideak, eskubideak berezko zuzen bideak eta olakoak e2.arri ta beteazo bear ditu.

XVIII gizaldian egin zan lenengo Giza-Eskubideen Autorpena.

Lege-gizonen eta gogoetarien lana izan zan.

Izatezko legea, edozein gizonak gogoratu leikena, lenengo gaia ta aldatu-eziña dala gogoratu eben.

Baiña ori guztiak eta erri guztietan onartu bearrekoa zan. Orretarako adimen argi eta burubide zuzenaz lan egin bear.

* * *

Aldi aretako gogoeta nabarmen orren onura ziran eta, errien naimen lez agertu ziran urrengo autorpenak eta erri jabetasuna izendatzen zan, agintaritzari indarra emoteko bide lez.

Ipar-Ameriketako Askatasunaren legeak diño : Gizonak irasi dabez gobernuak eta gobernuen zeregiña da gizonak zuzentzea, artu dituen almenak bide dirala.

* * *

ONU'k be ontzat artzen dau Erri-naimenaren gogorapen au esanez: Erriaren guraria da, agintarien almenaren oiñarri. GURARI ori noizean bein egingo diran auteskunde garbi eta tolesbakoen bidez agertuko da.

LETONA'k